

GRADUKO UNIBERTSITATE IKASKETETAN KREDITUAK AITORTZEA ETA TRANSFERITZEA ETA IRAKASGAIEEN AITORTZEA (BALIOZKOTZEA)

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak honetaz dauzkan arauak jasota daude, alde batetik, Graduko ikasketetan kredituak transferitu eta onartzeko arautegian (Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartua eta 2012ko ekainaren 19ko EHAA n argitaratua, 119. zk.) eta, bestetik, unibertsitateak ikasturtero argitaratzen duen gestio arautegian. Kredituak transferitzeari buruzko arautegiko 3. artikuluan arabera, kredituak aitortzea ikasle batek ikasketa ofizialetan (amaituak edo amaitu gabeak) eskuratutako kredituak onartzea da. Ikasketa horiek uneko ikasketen bestelakoak izango dira, eta UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean (Estatukoa edo atzerrikoa) eginak. Aitortutako kredituak UPV/EHUn matrikulatutako titulu ofiziala lortzeko egindako kreditutzat hartuko dira. Beste ikasketa batzuetan lortutako kredituen aitortzearen dagokionez, arautegiak dio 2.3 artikuluan ezen *“Ikastegietako akademia-batzordeei dagokienez, batzorde bakoitzak bere ikastegian ikasketak baliozkotzeko aurkeztutako eskaerak ebatziko ditu, aldez aurretik zerikusia duten sailen txostena jasota. Sailek txostenak egiteko sistema egokia arautuko dute, araudian ezarritako baldintzak eta epeak aintzat hartuta.”*

Eskaerak aurkezteko epeak

- Eskariak irailaren 9tik 13ra bitartean aurkeztu behar dira.
- Ez dira onartuko epez kanpo edo dokumentazio guztia gabe entregatutako eskaerak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Baliozkotzeko fitxa, bana irakasgaiko.

2. Egin eta baliozkotu nahi diren irakasgaien **programa edo irakaskuntza gida**, jatorriko unibertsitateak zigilatuta, bereziki aipatuta irakasgai horien gaitasunak, edukiak eta ECTS kreditutan duten luzera eta zer ikasturtetan egin diren.

3. **Ziurtagiri akademikoa**, jatorrizko ikastegiak emandako kalifikazioekin.

Jatorriko ikasketak fakultate honetan egin badira, ez da programarik agertu beharko, baliozkotzeko fitxa beteta besterik ez.